

ANDRE FRANZISKA~REN ALABAK

BEREN AMARI EGUN-ONAK.

Egun sentiko izarra dago
 Goizetik galde egiten
 Zeruko berri egun onetan
 Munduan ote dakiten;
 Sekulan baño ederragoa
 Gaurko goizean da irten
 Diyoalarik «ara Zeruan
 »Aingeruak zer dabilten.»

«Tronu goy baten beren erregiñ
 »Maitea egun onetan
 »Jarririk ara danak kantari
 »Non dauden bere oñetan.»
 Aingeru ayek egiten duten
 Bezala zeru goyetan
 Egiteko guk jarri dezagun
 Kontu guzia ayetan.

Nola sarjiñ bat lore ederrez
 Dagoanian betia
 Ala birtutez beterik dago
 Gure ama chit maitia;
 Egongo balitz gure eskuan
 Dana laztanga jatia
 Uste genduke ateratzia
 Bakoitzak bere zatia.

Begi ederraz, kolore gorri
 Azala leun ta zuri
 Irurogeita amar urtekin
 Oso totolo ta guri;
 Jaunak Zerutik grazia asko
 Onegan ditu isuri
 Paregabeko edertasunez
 Serafincho bat diruri.

Samintasunak ta naigabeak
 Sarri dizkigu arindu
 Berak lan egiñ eta besteri
 Alik guchien agindu,
 Baña ejenplo ona emanaz
 Alegin dana egin du
 Alabak ondo maitatzen iñork
 Ezin lezake berdindu.

Andre Franziska, ama maitea,
 Esan al baño obia,
 Zuri, gorria, berde, urdiña,
 Belcharan, more, oria,
 Kolore danaz apaindutako
 Usai gozoko loria
 Erruguz gaude eman degizun
 Jaunak Zeruan gloria.

PEDRO MIGUEL DE URRUZUNO.